

Demagun ehun urte barru gure hizkuntza ez dela jada existitzen...

I

Uda betean heldu zitzaidan Donostia/San Sebastian 2016ko gonbita. Hipotesi asaldagarri hori eztabaidatu nahi zuten abenduan egitekoa zen topaketa batean, eta bertan parte hartzeko deitzen zidaten. Baietz erantzun nuen, udaldian ohikoak diren axolagabetasunak, arinkeriak eta grina hutsalak hartaraturik. Izango nuen denbora izenburuko hipotesiak planteatzen zituen galderez hausnartzeko; denbora, nire mintzaldiaren edukiaz pentsatzeko, zalantzetarako, erreparoetarako, baita itxaropen txiki-txiki bat elikatzeke, pentsatuta biltzar hura, hondarrean, ez zela egingo; denbora luzea izango nuen udagoieneko hilabete malenkoniatsuetan, ilunpeak hazten diren garai horretan, euria goian behean ari denean, biluzten hasitako zuhaitzen hostoek, urrezko lore erraldoi bilakaturik, zabaltzen duten distira dekadentearen argitan. Azkenean, jada Prateko aireportuko gela hits zatatatsu horietako batean nengoela, Donostiarako hegaldia hartzeko puntuan, neure buruari galdezka ari nintzaion, halakoetan beti ohi dudan moduan: Zergatik noa? Zergatik noa? Galderaren erritmoarekin bat egiten zuten nire bihotzeko taupadek. Erantzuna, alabaina, argia zen. Joan nindoan irakurrita neukalako topaketara deitzen gintuen pertsonaren liburu zoragarri bat, Anjel Lertxundiren *Eskarmentuaren paperak*. Irakurri nuenean, duela zenbait urte, berehala antzeman nuen halako gertutasun bat, senidetasun bat. Ezaguna nuen orri haiek ibiltzen zuten paisaia literarioa – Kosztolányi-rena, Márai-rena, Kertész, Gombrowicz, Miłosz, Klaus Mann eta Joseph Rothena–, eta hain gertukoa ez zitzaidan beste mundu bat ezagutu nuen, euskararena. Izan ere, Anjel Lertxundiren liburu horretako 160. orrialdean agertzen da topaketaren abiapuntua eta neurri batean gidaria den Witold Gombrowiczen esaldi aztoragarria: «Hemendik

ehun urtera, artean gure hizkuntza existitzen bada... »

Czesław Miłosz zako gutun batean idatzi zuen Gombrowiczek esaldia, eta bere hizkuntzaz ari zen, polonieraz. Anjel Lertxundiren kezka euskarari buruzkoa da; hizkuntza ez-hegemoniko bat, haren esanetan. Azaldu behar dut nire lan hizkuntzetako bat ere ez-hegemonikotzat jo daitekeela gaur egun, ez-inperialtzat, nahiz eta euskararekiko desberdintasunak handiak izan, historiagatik, kokapen geografikoagatik, etab. Hungarieraz ari naiz. Hungarieratik itzultzen dut, eta hizkuntza hori ere, euskara bezala, hizkuntza eranskaria da, eranskariak ez diren hizkuntzek inguratuta. Anjel Lertxundik ez-hegemoniko esaten dien hizkuntza horietan idazten dutenek badute ezaugarri komun bat: zalantzan jartze moduko bat, pitzadura, arrakala, duda antzeko zer bat hizkuntzaren pertzepzioan; hizkuntza ez baita azalera lau, eta beraz ikusezin, baten modura azaltzen; ez da agertzen beti bertan dagoen aintzira baten naturaltasunaz. Horren eraginez, batzuek hizkuntza horietako idazleei (ez, ordea, hegemoniko esaten zaien hizkuntzetako idazleei) egin ohi dizkieten galderak –«zergatik idazten duzu hizkuntza horretan?», «zer esan nahi du zuretzat hizkuntza horretan idazteak?»–, Anjel Lertxundik arrazoi osoz errespetugabetzat jotzen dituen galdera horiek barneratu egiten dira zenbaitetan, barne galdera bilakatzen dira: «zergatik idazten dut hizkuntza honetan?», «zer esanahi du niretzat hizkuntza honetan idazteak?». 2002ko Literaturako Nobel saridun Imre Kertész hungariarrak ere galdera berak planteatzen ditu, eta ondorio erabateko eta aldi berean anibalenteetara heltzen da.

Batzuetan –ez beti–, Holokaustoko idazletzat jotzen du bere burua Kertészek; Tadeusz Borowski poloniarraren eta Jean Améry austriarraren parean jartzen du bere burua, eta honela dio *A száműzött nyelv* (Hizkuntza erbesteratua) liburuan: «Holokaustoko idazlea nonahi eta hizkuntza guztietan da erbesteratu intelektuala, beti asilo eskean atzerriko hizkuntzei». Eta horrekin ez du bakarrik adierazi nahi bere lana

itzulpenaren bidez zabaldu zela, behin baino gehiagotan azpimarratu badu ere, ezpada idazteko darabilen hizkuntza bera arrotza dela, neurri batean, Holokaustoaren berezko hizkera izan beharko lukeenari dagokionez. Holokaustoak ez baitu bere hizkuntza; hizkuntza berria sortu beharko litzateke hura erabat azaldu ahal izateko. Hungarieraz, alemanez, italieraz, polonieraz edo grezieraz idatzita dagoela ere, Holokaustoaren literaturak maileguan hartutako hizkuntzan jarduten du, ez dagoelako hori adierazteko gauza den hizkuntzarik, bizirik atera dena berez delako pertsona zokoratua, berea beharko lukeen hizkuntza ez baitator bat hizkera nagusiarekin, besteen hizkerarekin. Tadeusz Borowski, Auschwitzetik bizirik irtendako idazle poloniarra aipatzen du Kartészek, honela baitzioen hark: «Euren oihuekin isiltzen gaituzte poetek, abokatuek, filosofoek, apaizek».

Imre Kertészekin harreman anbigua zuen bere hizkuntzarekin. «Hungarieraz idazten dut, hori dut zoritxarra», aipatu izan zuen inoiz. «Hungariera dut hizkuntzarik apartekoena, ama hizkuntzaren mailan hitz egiten dudana». Edota, *Gályanapló* (Galeretako egunkaria) obran: «hungariera beti izango da bigarren mailako hizkuntza bat, bazter utzitakoa eta gaizki ulertua; kultura hungariarrak ez du sekula tokirik izango garrantzia duen kulturaren baitan, kultura unibertsalean, kultura hungariarra beti hartzen baita bigarren mailakotzat, bazter utzitakotzat, gaizki ulertutzat». Aldi berean, hizkuntzak bultzatzen du Kertész, beste gauza batzuen artean, bere herrian geratzera, 1956an alde egiteko aukera duelarik; geratu egiten da bere nobela idatzi behar duelako; horrela agertzen da, fikziora eramanez, *A kudarc* (Porrota) liburuan. Gozatu ere egiten du Kertészekin bere hizkuntzaren ñabardurekin, eta hala ikus daiteke bere lanetako zenbait pasartetan, estilo kontuez egiten dituen gogoetetan edo idazle hungariar zenbaiti dien maitasunean; Szomory edo Krúdy, esaterako, atsegin handia hartzen baitzuen prosalari handi horiek irakurtzen.

Alabaina, norberak idazten duen hizkuntzarekiko harreman urrun samar, zalantzatsu hori bera agertzen da hizkuntza hegemoniko edo inperialetan ere. Esango nuke haien periferian gertatzen dela, eta ez txiripa hutsez. Alemanaren esparruan, adibidez, Austrian gertatzen da gehien bat. Hain zuzen ere, literatura austriarraren ezaugarrietako bat da hizkuntzari buruzko gogoeta etengabea, hizkuntzarekiko zalantza, hizkuntzaren kritika. Austriako alemana aleman «txiki» bat dela esan genezake Deleuze eta Guattari parafraseatuz, Kafkaren idazkerari eta Kafkaren alemanari buruz, Pragakoaz, dihardutelarik; Paul Celan ere periferiatik zetorren, inperio austrohungariarra izan zen haren mugaldeetatik.

II

Bada Anjel Lertxundiren liburu zoragarri horretan arreta eman zidan beste elementu bat: hizkera administratiboari, burokratikoari buruzko gogoeta. Honela dio: «Euskararen batasuna eta etorkizuna teknikarien lana dela, politikarien praktikak hala sinestarazi zigun eta euskalgintza halaxe dabil aspaldi». Eta, aurrerago: «Pobretasuna da halako hizkera baten ezaugarri nagusia: monotonoa da, lexiko unibokoa du, kate morfosintaktiko beti bera, kolore bakarra, tonu elkor lehorra eskaintzen du (robotek robotekin jarduteko ezin aproposagoa) [...] Ez ditu ahozko hizkera eta idatzia bereizten, ez ditu erregistroak desberdintzen, den-dena lautzeko joera du arruntasunaren galgan (lapa beltzak ere aspertuko lituzke) [...] Hedabideek, beren kode propioa landu ordez, hizkera burokratikoa imitatzen dute, eta, are okerragoa dena, hizkera burokratikoari bermea ematen diote. (Hedabideak boterearen bozgorailu bihurtu dira, baita hizkera klase baten transmisioa egiterakoan ere.) »

Karl Krausek –jakina denez, sarritan itzuli dut autore hori, baita luzaz aztertu ere– barre egiten dio, Lehen Mundu Gerraren amaiera aldera idatzitako *Ampliado y profundizado* satiran, garai hartan prentsa zenaren

eta egun hedabideak, oro har, diren horien paperari. Eta iradokitzen du XX. mendetik aurrera hizkera bera partekatzen dutela botereak eta hedabideek, eta hala, fartsa hutsa bihurtzen dela hedabideek botereari kontu hartzeko asmoa. Ezin dute halakorik egin hizkera bera darabiltelako. Estatu modernoaren funtzionamendutik eta horren hizkeratik ezin berezizkoa da prentsa, iradokitzen du Krausek. Administrazioaren eta hedabideen arteko aliantza hori, gainera, loturik dago hizkeraren ikuspegi murriztaile batekin: hizkera bitarteko hutsa da, informazioarena zein desinformazioarena. Hala bada, topikoz elikatutako eta topikoetan itotako hizkuntzak, esperientziatik bezainbat ideiatik aldendurik, galdu egiten du, azkenean, adierazteko ahalmena; galdu egiten ditu bere alderdi askotarikoak, eta bakarrari eusten dio; horrexek kutsatzen du dena: irakurleak, entzuleak, hiztunak baita gauzak eurak ere. Behin betikoa eta saihestezina dirudien prozesu baten aurrean gaude, eta kezka baino ezin diogu begiratu.

III

Demagun ehun urte barru gure hizkuntza ez dela jada existitzen...

Esaldi horrek etorkizunarekiko larridura adierazten du... Gaur egun, ziurgabetasuna da nagusi gure etorkizunari dagokionez, dagoen krisi ekonomikoaren, politikoaren eta sozialaren eraginez, baina baita teknologiak zabaltzen dituen aukeren eraginez ere. Oro har, halako dimentsio apokaliptiko bat nabari da gure zibilizazio teknologiko hau hautemateko moduan.

Azken hamarkada luzeetan egonezin eta larritasun handia, apokaliptikoa sortarazi du teknologiak pertsonon etorkizunari gagozkiolarik. Zibilizazio teknologikoak arriskuan jartzen duelako gizateriaren existentzia bera. Aukera egon daitekeelako pertsona funtsean manipulatzeko, ingeniariak genetikoaren alorreko zenbait praktika tarteko. Distantzia izugarria dagoelako teknikaren esparruko ekintzen eta

horien ondorioen artean; ekar ditzagun gogora, adibidez, energia nuklearra eta haren hondakinak, mendetan zehar jarraituko baitute izaki bizidunen ingurunea eta osasuna mehatxatzen. Ez garelako jada bitarteko batez, baliabide batez, gure luzapena den zer batez ari, gu geu bilakatzen baikara bitarteko, baliabide, aldaketa teknologikoen beraien akuri. Dialektika bat dago, helburu eta eskari berriak sortzen dira; pentsaezinak ziren orain arte, eta ez dira nahitaezkoak, baina gainezka daude gure bizitzetan. Guk jada menderatu ezin dugun dinamika propioa sortzen du teknologiak. Pentsa dezagun, gainera, gaur egun kapitalak ezin duela jada enplegua bermatu, pertsonak lanpostuetatik baztertzeko joera duela, haien ordeztu makinak, robotak jartzeko. Nabaria da hori, guztiz bistakoa. Bestela esanda, etorkizunarekiko kezka-, larritasun- eta zalantza-egoera bizi dugu.

Testuinguru horretan kokatzen da, nire ustez, mintzo garen eta idazten dugun hizkuntza hori hemendik ehun urtera desagertu daitekeelako hipotesia. Hau da, hizkuntzagatiko kezka etorkizunagatiko kezka edo larritasun orokorraren baitan txertatzen da. Eta ez da bakarrik euskararen kontua. Zer gertatuko da gure hizkuntzarekin? Zer gertatuko da gure hizkuntzekin? Estatu Batuetako gobernuaren Energia Saila, adibidez, 1983az geroztik ari da hizkuntzalariak, arkeologoak, antropologoak, zientzialariak, zientzia fikzioko idazleak eta futurologak biltzen, ikertzeko nola ohartarazi arriskuaz, hemendik milaka urtera, Carlsbad-en (Nuevo Mexiko) dagoenen hilerri nuklearrera hurbil litekeen jendea. Nola jakinarazi hamar mila urte barru pertsoneri –pertsonak baldin dira– han bildutakoa arriskutsua dela, guztiz kutsagarria? Ez dirudi gaur egun erabiltzen ditugun hizkuntzek ordura arte bizirik iraungo dutenik, beraz, orain jar ditzakegun abisuak ez dira ulertuko. Eta hala, pentsatzen ari dira irudiak, ikonoak baliatzea –Edvard Mnuchen *Oihua*, esaterako– arriskuen berri emateko. Ideia bat egiteko, nahikoa da esatea badagoela

«semiotika nuklearra» izeneko diziplinarteko esparru aztoragarri bat.
Horraino heldu gara...

IV

Eranos taldeko batzarretako batean –hogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, urtero, filosofoak, teologoak eta zientzialariak bildu zituen talde horrek Suitzan, Ascona herrian; aipatuko dut, bidenabar, *eranos* hitz greziarrak «jendarteko otordua», «lagunarteko otordua» esan nahi duela, hots, gure topaketa honen antzeko zerbeit–, bada, batzar haietako batean, 1970ekoan hain zuzen ere, duela ia berrogeita hamar urte, «Gizakia eta hitza» izan zen izenburua. Bertan parte hartu zuten Ernst Benz teologoak, Gershom Scholem filosofo eta mistika judutarraren ikertzaileak eta beste zenbait adituk, eta horietako lehenak adierazi zuenez, honoko hau izan zen bileraren arrazoia: «hizkeraren bilakaera izugarri azkartzen ari da, eta bilakaera horrek hizkuntzaren desagertzera garamatza. Automatizazioan ikus daiteke, gizakiak asmatutako ordenagailuetan, zeintzuen esku utzi baitu gure zibilizazio modernoak geure bizitzaren zenbait alorretako planifikazioa...»

Lehenago esan dudanez, urte luzez landu dut Karl Kraus satiriko austriarraren lana, *Die Fackel* (Zuzia) aldizkariaren sortzaile eta egilearena. Hura ere idazle apokaliptikoa izan zen. Haren obra nagusietako batek Lehen Mundu Gerraz dihardu, eta *Die letzten Tage der Menschheit* (Gizateriaren azken egunak) du izena; ez da kasualitatea. Kraus, aldi berean, hizkuntzaren degradazioaz kezkatzen zen. Bestela esanda, badirudi lotura bat dagoela apokaliptikoa dei genezaken larritasunaren eta hizkuntzaren degradazioagatiko, are desagertzeagatiko kezkaren artean.

V

Hizkuntzari edo hizkuntzei buruzko gogoeta filosofikoak ikertu dituztenek badakite une jakin batetik aurrera luze hitz egin dela hizkuntzen bilakaeraz, izan dituzten eraldatzeez, haien historiaz. Hala gertatzen da, adibidez, Giambattista Vico filosofo napolitarraren historiaren ikusmoldean, historiaren eta hizkeraren bilakaerak paraleloan ikusteko moduan. Vicok zenbait aro edo garai bereizten ditu historian, baita, aldi berean, hizkuntzan ere. *Scienza nuova* (Zientzia berria) lanean, aro jainkotiarra, aro heroikoa eta aro gizatiarra aipatzen ditu; beste modu batera esanda, garai teokratiko bat, gari aristokratiko bat eta garai demokratiko bat; lehenak jainkoak goraipatzen ditu, bigarrenak heroiak ditu handiesten, eta hirugarrenak, pertsonak. Eta honoko hau gehitzen du: «Hiru izaera eta gobernu modu horiekin lotuta, hiru hizkera mota hitz egin ziren»; aurrerago, hiru hizkera mota horiek zehazten eta deskribatzen ditu. Guri aro gizatiarra legokiguke, garai demokratikoa, hizkera prosaikoa duena, «bizitzaren erabilera arruntetarako egokia». Apur bat gehiago zehaztuz, Vico baino murgilduago baikaude garai honetan, esan genezake Anjel Lertxundik aipatzen duen hizkera burokratiko-kazetaritzako hori dagokiola garai honi, dena hartzen duen eta denok ohitu garen hizkera elkor, monokromo, uniboko eta estatuaren menpeko hori.

Vicok ez zuen, ez, ustekabean idatzi hizkuntzaren historiaz XVIII. mendearen hastapenetan. Mende hartan, funtsezkoa eta gorabeheratsua izan zen hizkuntzari eta horren sorrerari buruzko eztabaida. Horri buruz idatzi zuten, besteak beste, Jean Jacques Rousseauk, Johann Gottfried Herderek eta Johann Georg Hamannek, baita beste zenbaitek ere. Pitzatu egin zen hitzaren jatorria jainkotiarra zelako sineste sendoa. Gizon-emakumeen zer bat bilakatu zen hitza. Hori frogatzeko, lehiaketa bat antolatu zuen, 1769an, Berlingo Zientzien Akademiak, Frederiko Handiak bultzaturik. Funtsezkoa zen auzia. Eta hau zen galdera: *En supposant les hommes abandonnées à leurs facultés naturelles, sont-ils en état*

d'inventer le langage? Herderek irabazi zuen lehiaketa, *Hizkuntzen jatorriari buruzko tratatua* izeneko saiakerarekin. Lan horren eraginez, eztabaida piztu zen Herderen eta Hamannen artean. Hamannek filologo kabalistikotzat zuen bere burua, eta hitzaren jatorri jainkotiarra defendatu zuen. Oro har, hitzak toki garrantzitsua zuen bere hausnarketetan. Hizkuntzaren magia desagertzearen kontra jarduten zuen, hizkuntzaren adierazkortasunaren, koloreen eta ñabarduren galeraren kontra; unibokoa denari egiten zion eraso, sinpletzeari, abstrakzioaren nagusitasunari, zeren, Hamannen ustetan, arrazoiak berak ere bai baitu funts linguistiko, eta, beraz, poetiko bat. *Rede, dass ich dich sehe!*, «Mintza zaitez, ikus zaitzadan!», dugu haren esaldi aipatuenetako bat. Izakiek beren burua agerraraztea bera bada hizkera bat. Hamannek zioen askotarikoa dela hizkera; esan egiten du, iradoki, erakutsi, adierazi nahi ez duena ere adierazten du. Haren iritziz –Vico ere bat zetorren–, poesia zen «gizon-emakumeen ama hizkuntza». Lehen esandako moduan, filologo kabalistikotzat zuen bere burua Hamannek. Ez gara hemen barneratuko Kabalaren mistikak hizkuntzaz duen ikuskeraren mundu zabalean, bai ordea ohartuko, kontzepzio horren eta gaur egun dugunaren arteko aldearen handiaz, tresnatzat jotzen baitugu orain hizkuntza, informazio- eta komunikazio- bitartekotzat, edo, nahi bada, inkomunikazio- eta desinformazio-bitartekotzat, eta Anjel Lertxundik aipatzen duen hizkuntza elkor, monotono, monokromo eta uniboko horretara garamatza. Kabalaren ustetan, Jainkoaren hitza da, ezerezetik mundua sortzen duen hori, gizon-emakumeon hitzaren prototipoa. Eta pertsonon hitzak, aldi berean, Jainkoaren hitz sortailea islatzen du. Hitz egitea Jainkoaren sorkuntza erreproduzitzea da. *Séfer Yetzirah* testuan –Kabalaren testu oinarrizkoenetako bat– alfabetoa da hizkeraren jatorria, baita, aldi berean, unibertso osoaren jatorria ere. Lotura horretatik dator, halaber, hizkuntza zaindu beharra. Kabalako zenbait idatzik berariaz adierazten dute Tora

osoa Jainkoaren izena dela. Ondorioz, testua transkribatzerakoan egindako akats txikienak ere mundua suntsituko luke.

Nolakoa litzateke mundua hizkuntzarik gabe? Besterik gabe, ez litzateke. Ideia hori dago Kabalaren hizkuntzaren filosofiaren oinarrian. Hitza ezin daiteke mundutik bereizi. «Orok hitz egiten du», dio Novalisek. Hitzaren jatorri jainkotiarraren ideia aipatu dugu, baita gizon-emakumeon ama hizkuntza poesia dela baieztatzen duen ideia ere, hau da, gure gaur egungo nolabaiteko handiustea iraultzen duten errepresentazioak, egungo ustea baita gailurra erdietsi dugula, umeen modura zezelka hasi zela pertsona hizketan eta gaur egungo mailara heldu dela etengabeko aurrerabidean.

Zenbaitek, ordea, kontrara ikusten du prozesu hori. Karl Krausen lanetan ere badago hizkuntzaren genealogia bat; hobe esanda, hizkuntzaren behera jotzearen, degradazioaren genealogia, eta data ere jartzen dio. Data jartzen dio degradazio horren –eta, bere joera apokaliptikoari eutsiz, munduaren gainbeheraren– hastapenari: kazetaritza hizkuntza sortu zenekoa, zehaztasun gutxiko eta hausnarketa urriko hizkuntza hori sortu zenekoa, hizkuntza informazio- edo desinformazio-bitarteko huts, topikoen gordailu, esperientziatik eta ideietatik aldendutako automatismo bilakatu zenekoa, eta, horretarako, bereak ez diren lurraldeetan ere barneratzen da kazetaritza; literaturan, esaterako, eta fagozitate egiten du. Hizkera guztietara zabaltzen da kazetaritza-hizkera, eta horri leporatzen dizkio Krausek gaitz guztiak: Lehen Mundu Gerra hastea, baita nazismoa sortu izana ere. Degradazio moralaren sintoma da hizkera txarra. Hizkuntzaren zaintza, berriz, moraltasunaren eskola. Hogeita hamarreko hamarkadaren hastapenetan, japoniarrak Shanghai bonbardatzen ari ziren artean, Kraus hizkuntzaz, gramatikaz eta estilo kontuez arduratzen zen nagusiki. Aurpegiratu egin zioten. Eta hark erantzun: «Shanghai bonbardatzen duten bitartean, ni komez arduratzen naiz. Hala da, uste osoa baitut Shanghaik ez zuela bonbardaketarik

pairatuko komak euren tokian baleude». Hor ikus dezakegu nolako hari sendoek lotzen duten esaldi hori Kabalako ideiekin, Kabalako mistika linguistikoan dagoen hizkuntzaren laudorio eta goraiamenarekin. Hizkuntzaren ordena da munduaren ordena. Lehendabizikoa nahasteak bigarrena nahastea dakar.

VI

Karl Krausek, bere testuetako batean, hizkuntza gaietako garbizaleen kontra jarduten du, Lehen Mundu Gerraren hasierako liskar gune hura baliaturik beren tesiak ezarri baitzituzten, baita agintariak jatorri arrotzeko zenbait hitz, batez ere frantses eta ingeles jatorrikoak, debeka zitzaten lortu ere, eta testu horretan, Goethe aipatzen du; honela zioen Goethek: «Ama hizkuntza garbitzea eta aberastea bururik onenen zeregina da. Aberasterik gabeko garbiketa, ordea, asmamenik gabekoa izaten da sarritan. [...] Pertsona argiak material lexikoa biltzen du, zer elementuk osatzen duten kontuan hartu gabe; buruargia ez dena aratz mintza daiteke, ez baitu zer esanik. [...] Garbitzeko eta aberasteko modu askok jardun behar dute elkarlanean hizkuntza bizi haz dadin. Poesia eta mintzaira sutua dira bizitza horren iturburu bakarrak, eta, oldarrean mendiko hondakinak ere garraiatzen dituzten arren, hondoan jalkiko dira hondakinok, eta haien gainetik ibiliko uhin garbiak.»

Poesia eta mintzaira sutua dira, baiki, hizkuntzen hitz biziaren iturburu bakarrak. Eta nahiz eta joera egon horiek burokratizatzeke, itotzeko, mendean hartzeko, bigarren mailako eta estatuaren menpeko bilakatzeko, irudiaren, propagandaren edo etengabeko publizitate kanpaina bateko konpartsa bilakatzeko, elkor, monokromo eta geldo bilakatzeko, oraindik ere badabil erreka bat.

VII

Hodei beltzak gorabehera, ematen du badagoela esperantza. Hala frogatu zen Donostiako Aquariumeko espazio magikoan, 2016ko abenduaren 12 eta 13an egindako topaketan. Magikoa zen espazioa, zeren, eszenaren atzeko arrainontzi erraldoian, errezel batek ezkutaturik, marrazoak eta arraiak mugitzen baitziren, dortokak eta suge arrainak; egokia, errezela, bestela animalia patxadatsu haiek eurenganatuko baitzuten ikusleen arreta, eta hizlarien oratoria isilarazi eta are gezurtatu ere egin zezaketen euren urrezko isiltasun misteriotsuaz. Argigarria eta esanguratsua zen hizlarien jarduna, esaten zutelarik, adibidez, askotarikotasuna dela nagusi gizon-emakumeon artean, baita pertsona bakoitzaren baitan ere, gizon-emakume gehienak elebidunak direla, emankorra gertatzen zaiola idazleari bere lana periferian sortzea, boterearen muinetik gertu egoteak dakarren pobretze mentala saihesten baitu horrela, idazlearen lanerako tresna ez dela hizkuntza hau edo bestea, hizkera bera baizik, ez gaudela identitate bati kateaturik, ibili gabiltzala, etengabeko bilakaeran, itzulpenean zerbait galdu egiten dela, baina handiagoa dela irabazia, itzulpenak literatura unibertsala dakarkiola hizkuntza bakoitzari, eta, hala, hizkuntza hori joriago egiten duela. Musikak jarri zuen azken puntua, sarritan gertatzen ohi denez. Antxon Valverdek Lauaxeta eta Lizardiren poemak kantatu zituen. Hitz ederrak, are ederragoak musikak, txotxongilolari baten modura, jaso egiten dituelarik. Hori, ordea, beste kapitulu bat da...